


ERREDOX ERREAKZIOAK ERREPASOA (SELEK 21)


B2. Ur oxigenatu komertzial baten kontzentrazioa neurtzeko, baloratu egiten da kontzentrazio ezaguneko potasio permanganatoaren disoluzio bat erabiliz (permanganimetria). Ingurune azidoan, permanganato ioiak (MnO_4^-) oxidatu egiten du H_2O_2 -a O_2 -ra, (doitu gabeko) erreakzio honen arabera:



- a) Adieraz ezazu zer tresna eta material beharko diren balorazioa egiteko. (0,25)
- b) Azaldu ezazu balorazioa egiteko prozedura marrazki bat erabiliz. (0,75)
- c) Azaldu ezazu zergatik ez den adierazlerik behar balorazio hau egiteko. (0,25)
- d) Idatz ezazu balorazio honetan gertatzen den erreakzio doituak. (0,75)

(**Emaitzak:** 2,5,3→1,2,5,8 ; potasio permanganato erreduzitzen da eta ur oxigenatua oxidatu egiten da).

A4. Erreakzio kimiko hau emanda:



- a) Doitu erreakzioa ioi-elektroi metodoa erabiliz. (1,50)
- b) Adierazi, arrazoituz, zein espezie oxidatzen den eta zein erreduzitzen den. (0,50)
- c) Erreakzioa osoa bada, zenbat mL kloro gaseoso sortuko dira, 15 °C-an eta 1,5 atm-an neurtuak, 42,5 g sodio kloratetik abiatuz gero? (0,50)

(**Emaitzak:** 2,5,6→1,5,1,6 ; ; sodio kloratoa erreduzitzen da eta manganesoa oxidatu egiten da; 3,15L koro)